

ESP. 2/2025

EXP. 2/2025

ERABAKIA, 2026ko MAIATZaren 20koa, ERTZAINZAK 2025eko APIRILAREN 3an BILBOKO ERREKALDE AUZOAN BURUTUTAKO JARDUKETARI BURUZKO PROZEDURA GELDIARAZTEA ERABAKITZEARI BURUZKOA, EKINTZA HORRETAN ERTZAINEK USTEZ JAURTIKITAKO FOAM BALA BATEN ONDORIOZ GIZONEZKO BAT BARRABIL BATEAN ZAURIA IZAN ZUELAKO ABIARAZITAKOA.

ACUERDO DE 20 DE MAYO DE 2026, POR EL QUE SE ACUERDA LA SUSPENSIÓN DEL PROCEDIMIENTO RELATIVO A LA ACTUACIÓN DE LA ERTZAINZA DESARROLLADA EL 3 DE ABRIL DE 2025, EN EL BARRIO DE REKALDE DEL MUNICIPIO DE BILBAO, EN EL TRANCURSO DE LA CUAL UN VARÓN RESULTÓ HERIDO EN UN TESTÍCULO COMO EVENTUAL CONSECUENCIA DE UN DISPARO DE FOAM REALIZADO POR PERSONAL POLICIAL.

I. AURREKARIAK

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak (aurrerantzean Batzordeak edo EAEPKGBk), Ertzaintzak 2025eko apirilaren 3an Bilboko Errekalde auzoan burututako jarduketa aztertzea erabaki zuen, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun sailburuak 2025eko apirilaren 7an bidalitako jakinarazpenaren bitartez. Erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen (EAEPLe) Testu Bateginaren 17.2 artikulua emandako eskumena baliatuta hartu zuen.

Bigarrena.- Aipatutako jakinarazpenaren arabera:

"... 2025eko apirilaren 3an, Bilboko Errekaldeko Gaztetxea zaintzeko asmoz Ertzaintzak ezarritako segurtasun dispositiboa burutu bitartean, ordena publikoaren aurkako zenbait istilu izan ziren. Horietan, kaputxadun batzuek botilak, suziriak eta bestelako gauzak jaurti zizkieten eskuhartze horretako ertzainei. Eraikina epailearen aginduz biharamunean hustea aurreikusita zegoelako burutu zuten esandako operatiboa. Antza denez, eta komunikabideetan jasotako albistearen arabera, istilu horietan gizon batek bat barrabil batean zauria izan zuen, polizia-agenteei foam bala batez egindako tiro baten ondorioz. Azaldutako gertakari guzti horiek direla eta, Barne Gaitarako Burutzak ikerketa bat abiarazi zuen gertatutakoa argitze aldera."

I. ANTECEDENTES

Primero.- Mediante comunicación remitida con fecha de 7 de abril de 2025, por el Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco (en adelante la Comisión o la CCTPPV), en ejercicio de la atribución conferida por el artículo 17.2 del Texto Refundido de la LPPV del País Vasco (LPPV), acordó proceder al estudio sobre la actuación desarrollada por la Ertzaintza el día 3 de abril de 2025, en el barrio de Rekalde del municipio de Bilbao.

Segundo.- Según la comunicación citada:

"...Con fecha 3 de abril de 2025, en el transcurso de un dispositivo de seguridad de la Ertzaintza establecido para custodiar el Gaztetxe de Rekalde, en la localidad de Bilbao, que estaba previsto desalojar el día siguiente mediante orden judicial, se produjeron unos incidentes de orden público en los que varios encapuchados lanzaron botellas, artefactos pirotécnicos y otros objetos contra los y las agentes que conformaban dicho dispositivo. Al parecer, en el transcurso de estos incidentes, y según informaciones aparecidas en medios de comunicación, un varón resultó herido en un testículo como consecuencia de un disparo de Foam realizado por personal policial. Por todos los hechos relatados, la Jefatura de Asuntos

Internos ha abierto una investigación para el esclarecimiento de lo sucedido.”

Hirugarrena.- Aurreko puntuan aipatutako polizia-eskuhartzea aztertzeko, Batzordeak honako hau eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzari:

“a) Batzorde honi esatea Segurtasun sailburuaren jakinarazpenak aipatutako polizia-jarduketa ikertzeko eginbide judizialik hasi ote den, horiek burutu diren epaitegia eta jaso duten erreferentzia-signatura adierazita.

b) Batzorde honi helaraztea azaldutako polizia-jarduketari lotuta egon litezkeen polizia-atestatuen kopia.

c) Batzorde honi helaraztea Ertzaintzaren Barne Gaietarako Burutzak aipatutako polizia-jarduketan gertatutakoa argitzeko asmoz abiarazitako barne-ikerketaren eginbideetako kopia.

d) Batzorde honi adieraztea nor den harremanetan jartzeko modua izateari begira Ertzaintzaren Zuzendaritzak izendatutako arduraduna, espediente honen izapidea arindu ahal izateko.”

Laugarrena.- 2025eko apirilaren 19ko eskaerari emandako erantzunaren bitartez, honako dokumentu hauek eman zizkieten Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeari:

- Idazkia, 2025eko azaroaren 7koa, aipatutako Barne Arazoetako buru operatiboak 4 zenbakiko Bilboko Epaitegiari zuzendua. Bertan, Batzorde honek 2025eko apirilaren 19an egindako eskaeraren berri ematen zuten, uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal

Tercero.- A fin de proceder a la realización del estudio sobre la intervención policial referida en el punto anterior, la Comisión acordó interesar de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que:

“a) Se informe a esta Comisión sobre la eventual incoación de actuaciones judiciales de investigación en relación con la actuación policial a la que se refiere la comunicación del Sr. Consejero de Seguridad, con indicación del juzgado en el que se sustancian y de la signature de referencia de las mismas.

b) Se dé traslado a esta Comisión de una copia del atestado o atestados policiales que, en su caso, sean elaborados en relación con la actuación policial descrita.

c) Se dé traslado a esta Comisión de una copia de las diligencias de investigación interna abiertas por la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para el esclarecimiento de lo sucedido durante la actuación policial referenciada.

d) Se interesa que por la Dirección de la Ertzaintza se indique una persona de referencia para establecer el oportuno canal de comunicación con esta Comisión, a los efectos de agilizar la instrucción del presente expediente.”

Cuarto.- En su respuesta a la solicitud del 19 de abril de 2025, se han facilitado a la CCTPPV los siguientes documentos:

- Escrito, fechado el 7 de noviembre de 2025, dirigido por el citado Jefe Operativo de Asuntos Internos al Juzgado N.º 4 de Bilbao. En él se da cuenta de la solicitud de 19 de abril de 2025, de esta Comisión, se transcriben los apartados 3 y 4 del artículo 19 de la Ley de Policía del País Vasco, aprobada por el Decreto

Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 19. artikulua 3. eta 4. apartatuak transkribatuta agertzen ziren eta, amaitzeko, honako hau adierazi zuten: “komeni da jakitea Epaitegiak eragozpenik ote duen Ertzaintzaren Barne Gaietarako Unitatearen Burutzak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeari eskatutako [REDACTED] zenbakidun atestatuaren kopia bidaltzea, esate baterako, honako inguruabarrengatik: ikerketa etetea, arlo penala, eginbideen erreserba...”.

- Idatzia, 2025eko ekainaren 30ekoa, Barne Arazoetako buru operatiboarena, Segurtasun sailburuordeari zuzendua, ertzain bati diziplina arloko prozedura bat ezartzearen bidez kotatutako buruzkoa, aipatutako lesioa eragin zuen tiroaren ustezko egile gisa.

- Prozedura horretan sortutako dokumentuak, diziplina arloko eginbideak etetea erabakiarekin batera, harik eta zigor arloko jurisdikzioak ebazpen irmoa eman arte, izan ere, gertakari berengatik [REDACTED] Aurretiazko Eginbideak bideratzen ari dira Bilboko 4. Epaitegian.

Bosgarrena: EAE PKGBren buruak Bilboko 4. Epaitegiari 2025eko azaroaren 20an jakinarazi zionez, Batzordeak gaia aztertzea eta hari buruzko txostena egitea onartu zuen, EAE PLren 19.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Jakinarazpenean argitzen zuenez, ikertutakoa, legeari jarraiki, polizia-jardueraren jokamoldeak edo horretan behin eta berriz gertatzen diren praktikak detektatzeari buruzkoa baino ezin da izan, jardunbide horiek kode deontologikoarekin bat ez datozenean.

Legislativo 1/2020, de 22 de julio, y se termina señalando que “sería de interés el conocimiento de si, por parte del Juzgado existe algún tipo de impedimento (interferencia en la investigación, penal, reserva de actuaciones...) para que, por parte de la Jefatura de la Unidad de Asuntos Internos de la Ertzaintza, se remita a la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco copia del atestado demandado, de referencia [REDACTED].”

- Escrito fechado el 30 de junio de 2025, del Jefe Operativo de Asuntos Internos dirigido al Viceconsejero de Seguridad sobre la procedencia de la incoación de un procedimiento disciplinario a un ertzaina como presunto autor del disparo del proyectil que habría causado la lesión mencionada.

- Los documentos producidos en dicho procedimiento, así como el acuerdo de suspensión de las actuaciones de orden disciplinario hasta tanto no se dicte resolución firme por la jurisdicción penal ante la que se instruyen por los mismos hechos las Diligencias Previas [REDACTED] en el citado Juzgado N.º 4 de Bilbao.

Quinto: El 20 de noviembre de 2025, con arreglo al artículo 19.4 LPPV, el Presidente de la CCTPPV puso en conocimiento del mencionado Juzgado N.º 4 de Bilbao que la Comisión había aceptado el asunto para su estudio e informe. La comunicación aclaró que, legalmente, este solo puede versar sobre la detección de patrones de conducta o prácticas recurrentes en la actuación policial que no resulten acordes con el código deontológico.



Seigarrena: 2025eko azaroaren 7an egindako idazkiari erantzunez, Ertzaintzaren Barne Arazoetako Burutzak (BAB) 2026ko urtarrilaren 2ko idazkiaren bidez Batzordeari jakinarazi zion arestiko epaitegiko titularrak helarazitako erabakia, 2025eko abenduaren 18an hartutakoa. Haren arabera, honakoa adostu zuen: *“Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen eginkizunak aitortu arren, une honetan ezegoki deritzogu polizia-atestatua helarazteari, epaiketaren inguruko eginbideen erresebagatik eta prozeduraren egungo egoeragatik”*.

II. KONTUAN HARTZEKOAK

Lehena.- EAEPLren 20. artikulua arabera, gure txostenak honako alderdi hauek jaso behar ditu: kasuaren inguruabarrak laburbiltzea; egindako lanak aipatzea; polizia-jardunaren zuzentasuna ebaluatzea indarreko arau, estandar, prozedura eta protokoloen arabera; azpian dauden arazoak aztertzea eta gomendioa luzatzea. Azken honetan, zuzentzeko, aurrea hartzeko edo hobetzeko neurriak proposa daitezke, hala badagokio, betiere gabeziei aurre egiteko asmoz edo antzemandako arazoak berriro gerta ez daitezen.

Eginkizun hori burutzeko, EAEPKGBk polizia-jarduketari buruzko ahalik eta informaziorik osatuna eskura izan edo bilatu behar du. Hala ere, lehenago esan bezala, orain arte ofizialki eskuratu dituen agiri bakarrak honakoak dira: batetik, Sailburuaren 2025eko apirilaren 7ko jakinarazpenean jasotako azalpen laburra; eta bestetik, BABk bidalitako dokumentuak, ertzain bati ezarritako diziplina arloko prozedurari lotutakoak. Gainera, horiek ere ez dute gertatutakoa argitzeko beste ezer eskaintzen. Bestetik, hedabideetan ere argitaratu dira honi buruzko informazioak eta, zehatz-mehatz, horietako batek bideo bat zabaldu zuen. Horretan, *foam* balak zauritutako bizilaguna joko zukeen uneko irudiak agertzen dira.

Sexto: Mediante escrito de 2 de enero de 2026, la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza (JAI) informó a la Comisión de que, en respuesta a su escrito de 7 de noviembre de 2025, la titular del mencionado Juzgado le había notificado una Providencia de 18 de diciembre de 2025 en el la que acordó que *“A pesar de las funciones de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, se considera que en este momento procesal no procede el acceso al atestado policial dado el carácter reservado de las diligencias sumariales y el estado actual del procedimiento.”*

II. CONSIDERACIONES

Primera.- De acuerdo con el artículo 20 de la LPPV, nuestro informe ha de resumir las circunstancias del caso; las actuaciones realizadas; evaluar la corrección de la actuación policial conforme a las normas, estándares, procedimientos y protocolos de actuación vigentes; analizar los problemas subyacentes, y formular una recomendación, que puede incluir, en su caso, la propuesta de medidas correctoras, preventivas o de mejora para hacer frente a las carencias o para evitar que se repitan los problemas detectados.

Para realizar esa labor, la CCTPPV ha de disponer o procurarse la información más completa que sea posible sobre la actuación policial. Sin embargo, hasta la fecha, la única que conoce oficialmente es, como se ha señalado más arriba, la que proporcionan la sucinta descripción de la comunicación del Consejero de 7 de abril de 2025, y los documentos remitidos por la JAI relativos al procedimiento disciplinario instruido a un agente que, tampoco, arrojan mayor luz sobre lo sucedido. También, se han publicado informaciones en los medios de comunicación, uno de los cuales difundió un video con imágenes del momento en el que se habría podido producir el impacto del proyectil de *foam* en la persona que resultó herida.

Argi dagoenez, material urri horrekin eta, batik bat, polizia judizialak idatzitako atestaturak eskura izan gabe, EAEPKGBtik ezin diogu ikerketari taxuz heldu, izan ere, ez dago ikerketa honen inguruabarrak laburbiltzerik, batez ere, zenbait alderdiri buruzko informazioa falta zaigulako: egitateak, parte hartzaileak, lekuko eta kaltetuen adierazpenak, jasotako frogak edo zantzuak eta abar. Gainera, ezin dugu ebaluatu erizainen jardunaren zuzentasuna eta ez dago EAEPKren 20. artikuluan eskatutako gainerako alderdiei gutxienezko zorrotasun eta fidagarritasunez errepazterik ere.

Bigarrena.- Aurreko puntuan adierazitako alderdiak ikertzeko asmoz Batzordeak berak gaia bere kabuz aztertzeko aukerari dagokionez, beharrezkoa da EAEPKren 19.4 eta 5. artikulua kontuan hartzea. Horrela, Ikerketak aurrera jo eta berezko txostena prestatu ahal izango du.

Manu horretan jasotakoaren arabera, Batzordeak txostenaren bitartez aztertu beharreko gertakariei buruz lehenago hasita egon daiteke diziplinazko edo zigor arloko ikerketa bat.

Aurreikusitako aukera horrek zentzu osoa dauka, ekimen horietako bakoitzaren helburua bestelakoa delako. Hona hemen azalpena:

- Zigor eta diziplina arloko ikerketen helburua dela eta, Batzordeak eremu horretan araua haustea dakarren jokabiderik egon ote den aztertu behar du, horri lotutako zigor edo zehapenekin batera. Aurrekoaz gain, dagozkion banakako erantzukizunak eskatuko ditu, hala egin behar duenean. Biek berariazko prozedura osatzen dute eta, gainera, polizia-jarduketa jakin bateko egitateak argitzeko baliagarriak dira, horietan egondako jokabideen larritasuna zehaztearekin batera. Bestetik, haien bitartez ikertutakoei entzuten zaiela eta defentsarako eskubidea dutela bermatu nahi da, betiere,

Es evidente, que con ese escaso material la CCTPPV y, de manera destacada sin tener acceso al atestado redactado por la policía judicial, no está en condiciones de resumir las circunstancias de un caso del que le falta la información sobre los hechos, las personas implicadas, las declaraciones de testigos y afectados, las pruebas o indicios recogidos, etc. y, menos aún, de evaluar la corrección de la actuación policial y abordar, con el mínimo rigor y fiabilidad, los demás extremos que requiere el citado artículo 20 LPPV.

Segunda.- En cuanto a la posibilidad de que la propia Comisión haga por su cuenta indagaciones conducentes a la averiguación de los extremos señalados en el punto anterior para, así, avanzar en su investigación y emitir su informe, es necesario tener presente el artículo 19.4 y 5 LPPV.

Este precepto contempla el supuesto de que sobre los hechos que deba estudiar y emitir su informe esté ya en curso una investigación penal o disciplinaria.

Tal previsión tiene pleno sentido dada la diferente finalidad de cada una de ellas. En efecto:

- Las investigaciones penales y disciplinarias se dirigen a la averiguación por la Comisión de conductas constitutivas de infracciones penales o disciplinarias a las que están aparejadas las correspondientes penas o sanciones y, en su caso, a la consecuente exigencia de responsabilidades personales. Ambas forman parte de procedimientos específicos que, al tiempo que buscan establecer los hechos y la gravedad de las conductas registradas en una actuación policial, garantizan la audiencia y el derecho de defensa de las concretas personas a las que se les instruyan, en observancia

errugabetasun-presuntzioari buruzko printzipio konstituzionala beteta, figura hau baztertzan edo aldarazten duten kausarik edo arrazoirik ote dagoen ebazteko asmoz.

- Batzorde honen eginkizuna beste eremu batean kokatuta dago eta ez dagokio zigor edo diziiplina arloko legezketasunari, alderdi deontologikoari baizik. Gainera, bere helburua ez da inoren erantzukizuna adieraztea edo argitzea. Aitzitik, "Poliziaren kode deontologikoarekin bat ez datozen jokabide edo praktika errepikakorak zein eskubideak urratzen dituztenak identifikatu nahi ditu, baita horiek zuzentzeko edo horiei aurrea hartzeko ekimenak proposatu ere", polizia-jarduketa baten kanpoko azterketa baten ondorioz halakoak agerian geratu direnean.

Beren xede eta helburuei erreparatuta desberdinak izan arren, gertakari bereberiei buruzko zigor edo diziiplina arloko ikerketa bat eta EAEPKGBrena aldi berean burutzeko aukera dagoenez, legegileak zuhurtziazko zenbait muga ezarri dizkio azkenengo bide horri, zigor edo diziiplina arlokoari "lotuta ez egotea" edo hura "ez eragozte" bermatzeko asmoz.

Egia esan, "ikerketari lotuta" terminoaren hitzez hitzeko interpretazioaren ondorioz, Batzordeak ezingo luke polizia-jarduketa bati buruzko ezer ikertu lehenago haren kariatara zigor edo diziiplina arlokoa hasi bada, esate baterako, norbait hiltzen denean edo lesio larriak eragiten zaizkionean [EAEPLren 17.2 b) artikulua]. Horregatik, transkribatutako manuari buruz egin beharreko irakurketa zuzena ez dagokie Batzordearen ikerketen eta zigor edo diziiplina arlokoen artean egon daitezkeen lotura-mota guztiei. Hala, soil-soilik izango luke eragina ildo bien arteko lotura zuzen eta kualifikatua dagoela agerian geratzen denean: bata, epailearen edo diziiplina arloko agintaritzaren aginduz egin

del principio constitucional de presunción de inocencia, al objeto de determinar si existen causas o motivos que la excluyan o modifiquen.

- La labor de esta Comisión se mueve en un plano distinto, que no es el de la legalidad, penal o disciplinaria, sino el deontológico, y su propósito no es -ni puede ser- la declaración y depuración de responsabilidades personales, sino la identificación de "patrones de conducta o prácticas recurrentes que no resulten acordes con el código deontológico policial o vulneradoras de derechos, así como proponer medidas correctoras o preventivas" que puedan revelar el examen externo de una actuación policial.

Ahora bien, aunque sean distintas por su objeto y finalidad, la mera concurrencia de una investigación penal o disciplinaria con la de la CCTPPV sobre unos mismos hechos, ha llevado al legislador a imponer a esta última ciertas cautelas que garantizan que "no esté relacionada" o no "perjudique" a la penal o disciplinaria en curso.

Ciertamente, la interpretación literal del término "relacionada" llevaría a negar toda posibilidad de investigación a la Comisión cuando antes se haya abierto otra penal o disciplinaria sobre la misma actuación policial, que es lo que ocurre cuando se producen el fallecimiento o lesiones graves de una persona [artículo 17.2 b) LPPV]. Por eso, hay que entender que el precepto transcrito no alude a cualquier clase de relación entre las investigaciones de la Comisión y las penales o disciplinarias sino, únicamente, a las que evidencien una conexión directa y cualificada entre las indagaciones o pesquisas que ya se hayan practicado o puedan acometerse por mandato de la autoridad judicial o disciplinaria



diren edo litezkeen ikerketei lotuta; eta bestea, EAEPKGBk egin litzakeenak jasotzen dituenak. Jakina denez gero, horietako bakoitzean balioetsi behar da muga hori gainditu ote den, aztertutako polizia-jarduketaren inguruabar guztiak kontuan hartuta. Halakoetan soilik utzi beharko dio Batzordeak ikertzeari.

Argiago da EAEPKGBren ikerketak eragin lezakeen “eragozpenaren” muga, hainbat modutan zehaztu ahal izango delako, batik bat, gertakarian parte hartutako polizia-agenteen jokabidearen kalifikazio juridikoari dagokionez; izan ere, Batzorde honek ikuspegi deontologikoaren arabera egin lezakeen balorazioak baldintza lezake.

Nolanahi ere, Batzordeak aztertutako gertakariak “abian den zigor arloko ikerketa batekoak” badira, hizpide dugun honetan gertatzen den bezala, EAEPkren 19.4 artikulua xedatuta dauka agintaritza judizial eskudunari jakinarazi beharra, honek dagokiona erabaki dezan, “zigor arloko ikerketan eta bere eginbideen erreserban eraginik ez izatea” lortzeko asmoz. Gainera, zigor arloko eginbideetan ikertutako langileak salbuetsita uzten ditu EAEPKGBri laguntza eskaintzeko betebeharrari dagokionez. Hala, Batzordeak auziari lotutako administrazio-agiriak, polizia-atestatua barne, eskuratu nahi balitu, edo bertatik bertara ikuskapenak burutzeko asmoa azalduko balu, “jarduneko agintaritza judizialaren aurretiazko onespena lortu beharko luke”.

Hirugarrena.- Azaldutakoaren arabera, 4 zenbakiko Bilboko Epaitegiak ez du onartu EAEPKGBri ematea erabaki honek xede duen polizia-jarduketari buruz egindako atestaturik. Ezezkoa argi eta garbi emanda dago, zalantza-izpirik gabe.

y las que pudiera realizar la CCTPPV. Obviamente, la apreciación de la concurrencia de este límite debe efectuarse en cada caso concreto y ponderando todas las circunstancias de la actuación policial a la que se refiera. Solo entonces, la Comisión deberá detener su actividad investigadora.

Más claro es el límite del “perjuicio” que pueda ocasionar la investigación de la CCTPPV, que podrá concretarse de manera diversa y, muy especialmente, en lo atinente a la calificación jurídica de la conducta de los agentes policiales que hayan intervenido en el incidente, en la medida que pudiera quedar condicionada por la valoración que, desde la óptica deontológica, pudiera hacer esta Comisión.

Sea como fuere, si los hechos analizados por la Comisión “son de una investigación penal en curso”, como aquí ocurre, el artículo 19.4 LPPV le ordena que lo ponga en conocimiento de la autoridad judicial competente para que esta decida lo que estime necesario con el fin de “no interferir en la investigación penal, ni en la reserva de sus actuaciones”. Además, releva al personal investigado en las diligencias penales de la obligación de colaborar con la CCTPPV y, si esta quisiera acceder a la documentación administrativa relacionada con el caso- lo que incluye al atestado policial- o a la realización de inspecciones *in situ*, “deberá obtener la aprobación previa de la autoridad judicial actuante.”

Tercera.- Según se ha expuesto, el Juzgado N.º 4 de Bilbao no ha aprobado el acceso de la CCTPPV al atestado policial levantado sobre la actuación policial objeto de este Acuerdo. La negativa se expresa en unos términos claros y terminantes que no dejan lugar a la duda.

Erabaki judizialaren ondorioz, Batzorde honek ez ditu eskuratuko ikertutako gaiari buruzko agiriak: argitutako egitateak jasota uzteko legez aurreikusitako dokumentua; jasotako aitoren zein txostenak; eta ikertutako polizia-jarduketaren inguruabar guztien idatzoharra (Prozedura Kriminalaren Legearen 292. eta 297. artikulua). Horiek dira, hain zuzen, gertatutakoaren informazio-iturri nagusia.

Hala ere, EAEPKGBk badauka egunkari batek argitaratutako bideo bat, arestian aipatu bezala. Baina erakutsitako irudiok kokatu eta baloratu behar dira polizia-jarduketa osoaren esparrua kontuan hartuta, hasieratik amaitu arte. Horretarako ezinbesteko ikuspegi orokorra erabili behar da, indarreko ikerketa judizialaren zati bat osatzen duela ahaztu gabe. Izan ere, jarduketan parte hartu zutenen eskubideak erabat bermatuta daude eta ikerketa judizial haren arabera egiaztatutako datuak adieraziko dira eta horiek lotesleak dira diziiplina-prozedura honetarako, baita Batzorde honi dagokionez ere.

Azaldutakoa kontuan hartuta, EAEPKGB ez dago bere txostena egiteko moduan -eta ez da egongo- harik eta agintaritzak judizialak atestatua eta kasuaren gainerako informazio garrantzitsua eskuratzea onartzen duen arte, edo legez izan daitezkeen instantzia eta errekurso guztiak agortu ondoren, bide judizialari amaiera ematen dion ebazpen irmoa ematen den arte. Gauza bera esan dezakegu diziiplina arlokoaz ere.

Laugarrena.- Are gehiago, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1 g) artikuluan xedatzen duenez, administrazio arloko ebazpena emateko -azken honi dagokionez, txostena eman ahal izateko- alde aurretik epaitegiak beste bat ematea ezinbestekoa denean, Administrazioak, gure kasuan, EAEPKGBk, prozedura etetea erabakiko du, organo horren erabakiaren berri izan arte.

La decisión judicial priva a esta Comisión del conocimiento del documento legalmente previsto para dejar constancia de los hechos averiguados, las declaraciones e informes recibidos y la anotación de todas las circunstancias de la actuación policial investigada (artículos 292 y 297 LECrim). Es decir, de la principal fuente de información de lo sucedido.

Sí dispone la CCTPPV, como se ha reiterado, de un video hecho público por un diario que recoge una parte de los hechos del incidente. Pero, las imágenes que muestra deben situarse y valorarse en el contexto de la actuación policial considerada en su totalidad, desde su inicio hasta su terminación, con la imprescindible visión de conjunto sin olvidar que forman parte de la investigación judicial en curso, en la que, con plena garantía de los derechos de las personas que participaron en la actuación policial, se declararán los hechos probados, con carácter vinculante para el procedimiento disciplinario y para esta Comisión.

Teniendo en cuenta lo expuesto, la CCTPPV no está en condiciones de elaborar su informe -ni lo estará- hasta que la autoridad judicial no apruebe el acceso al atestado y a la demás información relevante del caso o recaiga resolución firme que ponga fin a la vía judicial, una vez agotadas todas las instancias y recursos legalmente posibles. Otro tanto, cabe decir de la disciplinaria.

Cuarta.- A mayor abundamiento, el artículo 22.1 g) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de, Procedimiento Administrativo Común, prevé que, en el supuesto de que para el dictado de una resolución administrativa -en este caso la emisión de un informe- sea imprescindible que previamente se dicte otra por un órgano jurisdiccional, la Administración -en este supuesto la CCTPPV- acuerde la suspensión del procedimiento hasta que tenga constancia del pronunciamiento de dicho órgano.

III. ERABAKIA

Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak honako hau

EBATZI DU

Lehena: 2025eko apirilaren 3an Ertzaintzak Bilboko Errekalde auzoan burututako jarduketari buruzko txostena osatzeari uztea. Jarduketa horretan, gizonezko bat barrabil batean zauria izan zuen ustez ertzainek jaurtitako *foam* bala bat jasotzearen ondorioz (2/2025 espediente). Izapidea geldiarazita egongo da, harik eta agintaritzak judizial eskudunak eskatutako dokumentazioa eskuratzeko baimena eman arte edo jarduketa horren berri izan duten eginbide judizial eta administratiboak behin betiko amaituta egon arte.

Bigarrena.- Erabaki hau Segurtasun Sailari bidaltzea.

Bilbon, 2026ko maiatzaren 20an

III. ACUERDO

En virtud de lo expuesto, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco,

ACUERDA

Primero: Dejar en suspenso la emisión del informe sobre la actuación de la Ertzaintza desarrollada el 3 de abril de 2025, en el barrio de Rekalde del municipio de Bilbao, en el transcurso de la cual un varón resultó herido en un testículo como eventual consecuencia de un disparo de *foam* realizado por personal policial (Expediente 2/2025), hasta que la autoridad judicial competente otorgue la autorización de acceso a la documentación solicitada en su día, o estén terminados definitivamente los procedimientos judiciales y administrativos que conocen de dicha actuación.

Segundo.- Remitir este Acuerdo al Departamento de Seguridad.

Bilbao, 20 de mayo de 2026

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeburua
El Presidente de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

[ANONIMIZADO]

Cueva

Harremanetarako helbidea/Dirección de contacto: polizia-gardentasuna@euskadi.eus